









LEHEN HEZKUNTZA

Proiektua eta Metodologia **Plastika**



Ikonoak

Oinarrizko gaitasunak

-  Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna
-  Matematikarako gaitasuna
-  Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna
-  Giza eta arte kulturarako gaitasuna
-  Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna
-  Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
-  Ikasten ikasteko gaitasuna
-  Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Editorearen gutuna


Lehen Hezkuntzako proiektu berri hau atsegin handiz aurkezten dizugu, izen handiko lantalde bat izan baitugu proposatutako helburuak mamitzeko. Helburuok zenbait modutan gauzatuko dira Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako bakoitzean, kontuan izanda, betiere, ikasleen heldutasun maila eta behar bereziak.

Lehenik eta behin, eta gure proiektuaren ardatz denez, lortu nahi genuen materialek **ikasteko gogoa** sustatzea, hots, jakiteko grina eta jakiteak dakarren poza sustatzea. Hau da, haurrak ikasketarako motibatzea, ikasten jarraitzeko gogoa izan dezaten. Finean, liburuak zabaltzeko eta irakurtzeko gogoa izatea.

Horretarako, eta ikaskuntza orok ikasten duena kide izatea eskatzen duenez, ikaslearen interesak izan ditugu oinarri; pertsonaiak sortzean, hurrekin bat egin dezaketen pertsonaiak sortu ditugu; kontuan izan dugu zer ezagutza dituzten ikasleek eta zer ezagutza lortu behar dituzten.

Bestalde, beharrezkoa zen ikasleen erroak sendotzea eta beraien nortasuna eratzeko laguntzen duten alderdietan eragitea, eta, horregatik, **arrazoiz jokarazten duten materialak** sortu ditugu, garapen intelektuala eta gaitasun kognitiboa sustatzen dituztenak, baina baita ikaslearen irudimena, sormena, ekimena eta autonomia, eta **adimen emozionala** ere.





Hori guztia ezinbestekoa da hurrek beraiek bere kasa jarduten ikasteko, eta, etorkizunean, hiritar kritiko eta arduratsu bihurtzeko.

Eta horrexegatik, eraldaketa hori izateko aukera izan dezaten, ezinbestekoa da **mundurako ateak zabaltzea**, hots, egiten ditugun liburuek aintzat izatea, batetik, haurren gizarte errealitatea, baina, bestetik, hainbat leku eta kulturatako bizitzeko, pentsatzeko eta jarduteko moduak erakustea.

Eta ideia horrekin bat, ezin dugu ahaztu, jakinda zenbateko garrantzia izan duen betidanik guretzat, elkarrekin bizitzen ikasteko **balioak sustatzea**, enpatia landuz, **lankidetzako proiektuak** eginez, sortzen diren gatazkei konponbidea ematen saiatzeko, aniztasuna errespetatuz eta elkar ulertzea sustatuz, bazter utzi gabe norberaren izaera eta ardura indartzen duten balioak.

Horrenbestez, hona hemen gure apustua: **ikaskuntza koordinatua eta gaitasunen araberakoa**, hau da, ikasleen gaitasunak garatzea, ikasleek ikasitakoa estrapolatu eta beste egoera batzuetan erabil dezaten.

Hemen duzue proiektua, eta espero dugu helburu horiek guztiak betetzea eta ikasleekin batera gozatzea, guk geuk sortzean izandako atsegin berberaz.



Sei urtetik zortzi urtera bitarteko haurrak

Sei eta zortzi urte bitartean dituztela, neskatoek eta mutikoek ispiluan begiratzan diote beren irudiari eta gorputzaren neurriaz ohartzen dira, bai eta bere niaren arintasunaz ere. Bestearekiko harremanaren bidez, haurrek errealitateak mugimenduei ezartzen dizkien mugak ikusten dituzte, eta eguneroko eta etengabeko erronkei ezarritakoak ere bai.

Psikomotrizitatearen garapena

1. Beren gorputzaren irudia eratzen dute.
2. Gorputzaren atalak eta haien funtzioak bereizten hasten dira.
3. Mugimenduak, gorputz jarrerak eta arnasa kontrolatzeko gai direla jakitun izaten hasten dira.
4. Besoaren eta eskuaren independentzia sendotzen dute, bai eta begi-eskuaren arteko koordinazioa ere. Horrek irakurketa-idazketaren prozesua eta ikaskuntza errazten du.
5. Lateralitatea kontrolatzen eta finkatzen dute.
6. Espazioaren ikusmoldea egituratzen dute beraien gorputzaren eta beste pertsona eta gauza batzuen arteko erlazioaren bidez.
7. Denboraren nozioa barneratzen hasten dira, eta garrantzitsua dela ohartzen.



Garapen soziala eta afektiboa

1. Pixkanaka, haurtzaroko berezko jarrerak baztertzen hasten dira (esaterako, egozentrismoa eta desegonkortasuna), eta emozioak hobeto kontrolatzen dituzte.
2. Protagonismoa ematen diete bai irakasleei eta beste haur batzuei, eta, beraz, gizarte harremanak zabaltzen dituzte.
3. Harreman estu-estuak dituzte, oraindik ere, familiarekin eta irakasleekin, eta horrek gizartearekin eta kulturarekin lotutako edukiak lantzeko aukera ematen du, zenbait jarrera sustatzeko helburuz; esaterako, beste ingurune edo kultura batzuetako ikaskideekiko tolerantzia, irekitasuna eta lankidetzeta.
4. Kontziente izaten hasten dira familia ingurunean zein eskola ingurunean arau batzuk izatea beharrezkoa dela, eta ezinbestean bete behar dituztela. Horren bidez ikasten dute gizarteak elkarbitzita errazteko ezartzen dituen arauak.

Garapen kognitiboa

1. Trantsizio aldian daude. Konkretuari hurbildu beharra dute, eta bilatuz eta ikertuz egingo dute hori. Haurren burua sekuentziak eta esperientziari lotutako harremanak antolatzen hasten da.
2. Gai dira gauza edo gertaeretatik abiatuta zenbait eragiketa formalizatzeko eta antolatzeko, baina ez dira gai, oraindik, estrapolazioak egiteko.
3. Errealitatea osotasun gisa hautematen dute, baina ez dute gaitasunik, artean, errealitatea zatika aztertzeke ez eta zati horietatik ondorioak ateratzeko ere.

Moralaren garapena

1. Autonomia eta babesa behar dute. Zenbait balio eta arau eredu finkatzen eta bere egiten hasten dira.
2. Beraiantzat zein besteentzat ona dena bereizten dute. Horregatik, une egoki-egokia da elkartasuna, lankidetzeta eta besteekiko konpromisoa sustatzen duten jolasak, jarduerak eta lanak egiteko.
3. Kanpotik datorren ororekiko sentikorrak dira, eta bidegabetzat jotzen dutenarekiko, bereziki.



Hizkuntzaren garapena

1. Gauzen zergatia jakin nahi izaten dute beti.
2. Gero eta hizkuntza egitura konplexuagoak barneratzen eta erabiltzen hasten dira.
3. Lehenengo zikloan gai dira hots guztiak zuzen ahozkatzeko, eta haien adierazpen grafikoa ikasten eta pentsamendua hizkuntzaren garapen funtzional horren arabera antolatzen hasten dira. Horrenbestez, irakurketa eta idazketa menperatzen hasten dira, bai eta ahozkoaren eta idatzizkoaren ulermena ere.
4. Adierazteko eta komunikatzeko hitzezko eta idatzizko gaitasunetan konfiantza hartzen dute, orain artean zute-na baino askoz handiagoa.
5. Enuntziatuak antolatzen eta sistematizatzen dituzte: esaldi gero eta konplexuagoak egiten dituzte eta maiz erabiltzen dituzte koordinazioa eta alborakuntza, eta gutxiago bada ere, baita menderakuntza ere.
6. Deklinabidea, kopurua eta izenordainak bereizten dituzte, eta aditz denbora aditz moduak egoki erabiltzen hasten dira.
7. Hiztegia zabaltzen dute, gizarte elkarrekintzaren bidez, batetik, eta irakurketaren bidez mundu berriak ezagutzeko grina dutelako, bestetik.

Plastikako materialak



Ikaslearen liburua

Unitate didaktikoaren egitura

Behaketarako lamina

- Ikusizko azterketarako jarduera, unitatearen interesguneari lotutako marrazki eta argazki motibatzaileak ditu.

Adierazpenerako eta sorkuntzarako laminak

- Kontzeptuak eta teknikak esperimertzioaren eta sormenaren bidez lantzeko jarduerak.



Jarduera egiteko beharrezkoak diren materialak.



Argazki sekuentziak, jarduera konplexuetarako.



Berrikusketako jarduerak, sormenekoak.

Liburuaren amaieran

- Ebakigarriak, hiru hilean behingo egun berezietarako.



Proposamen didaktikoa

Proposamen didaktikoan irakasle lanerako behar duzun guztia izango duzu.



Gelako programazioak

Unitate bakoitzeko edukien, helburuen eta ebaluazio irizpideen programazioa.

Unitatearen interesgunea eta gomendatutako irakurketa.



Oinarrizko gaitasunen programazioa.

Metodologia eta ikasteko zailtasunak, aniztasunaren trataera, balioak...

Ustiapen didaktikoa

Ikaslearen liburuko orrialdeak agertzen dira, behaketako jardueren erantzun eta guzti.

Iradokizun metodologikoak, edukiak lantzen laguntzeko.

Oinarrizko gaitasunen garapena.



Lortu nahi diren helburuak.

Finkatzeko eta zabaltzeko jarduerak.

Edukiak errazago barneratzeko baliabideak.

Guztion artean... eta IKTen lantegia

Hiruhilekoaren amaieran, taldeko jarduera bat proposatzen da, gelako ikasle guztien artean egiteko.



Hiru hilean behingo jarduera, ikaslea lan plastikoak **teknologia berriak** erabiliz egiten trebatzen has dadin.

Plastika arloko metodologia

José Eugenio Esteban Almazán

Lehen Hezkuntzako lehen zikloan, ikaslea ikusizko mezua-
ren ulermena lantzen hasten da (oso garrantzitsua da hori,
gure gizartean gero eta gehiago erabiltzen den baliabidea
baita), eta baita hizkuntza plastikoa ere, bere ideiak eta
sentimenduak adierazteko, eta, horrela, bere adierazpen
eta sormen gaitasunak garatzen ditu.

Ibaizabalek plastika hezkuntzarako egin duen proiektu ho-
nen apustua ikaskuntza esanahidunak sortzea izan da, ikas-
learen benetako interesak eta aurretiko ezagutzak oinarri
hartuta. Horrekin batera, ikaskuntza diziplina artekoa izan
dadin sustatzen da: unitateek Ingurunearen Ezagueraren
interesguneak hartzen dituzte ardatz, arlo horrekin batera
ikasleak ingurune fisikoa ikuspegi plastikotik behatu eta es-
perimentatu dezan, ikaskuntza globala eskuratzeko.

Hezkuntzako Lege Organikoak Plastika arloa bi ataletan ba-
natzen du, eta unitateen egiturak, hain zuzen ere, bi atal
horietan iradokitako lan dinamikari jarraitzen dio:

- **Behaketa plastikoa.** Unitate bakoitzaren lehenengo orrialdeak ikaslea interesgunean murgiltzen du, marrazki eta argazki motibatzaileen bidez. Ingurune naturalari zein artifizialari buruzko marrazkiak eta argazkiak daude, bai eta kultura eta arte ondareko adierazpenei buruzkoak ere, eta, horietan oinarrituta, pertzepzio gaitasuna eta ikusizko azterketarako gaitasuna lantzeko ariketak planteatzen dira.
- **Adierazpen eta sormen plastikoa.** Jarduera gidatuak zein askeak proposatzen dira, ikasleak bere ikaskuntzak eratu ditzan, munduari buruz duen ikuskera adieraziz.

Unitate guztietan, aurreko laminetan landutako teknikak edo kontzeptuak aplikatzea eskatzen duen jarduera bat dago, eta, gehienetan, lan plastiko bat egin beharko du ikasleak, teknikak eta materialak egoki eta askatasunez aukeratuta. Beraz, sormenak funtsezko lekua du, baina ez da lantzen ikasleari ezkutuan eskatutako zerbait bezala, ez zaio eskatzen hutsuneak betetzea edukirik ez duten inprobisazioen bidez; aitzitik, aukera ematen zaio

bere ideiak eta bizipenak adierazten dituzten irudiak sortzeko, autonomia osoz eta aurretik eskuratutako ikaskuntzak oinarri hartuta.

Badira unitate guztietan agertzen diren printzipio batzuk: ohiko ingurune elementuen estetikaren balioespena, hizkuntza plastikoa sentsazioak adierazteko modu gisa erabiltzea, eta jarduerak ludikoak izatea.

Horrek guztiak proiektu honen beste ezaugarri bat erakusten digu, ikaskuntza asko aberasten duen beste ezaugarri bat, alegia: askotariko materiala erabiltzea eta horiekin esperimentatzea. Ez dira eskola materialak soilik erabiltzen, natura inguruneak ere erabiltzen dira (gatza, lurra, hondarra, eztia...), bai eta bota egin ohi diren materialak ere. Jarduera batzuk eta teknikoki konplexuak diren guzti-guztiak argazki sekuentzia moduan azalduta daude, prozesua argiago erakusteko eta ulertzen errazagoak izan daitezten.

Askotariko materialak erabiltzea eta teknika tradizionalak (marrazkia, estanzazioa, collagea) eta berriak (kola paper margotua) uztartzea funtsezkoak dira ikasleek baliabide plastikoak izan ditzaten trebetasun eta abilezia berriak eskuratzeko, eta, horrenbestez, adierazpen gaitasun handiagoa izateko.

Arreta handiz landu da hirudimentsiokotasuna: modelatzeko eta eraikitze jarduerak daude liburuan, eta azken orrialdeetan, berriz, egun berezietako ebakigarriak, muntatzeko. Planotik bolumenerako bidea eredu bidez adierazita dago, eta aurretik planoan irudikatutako lanak egingo dituzte hiru dimentsiotan.

Azkenik, *Proposamen didaktikoan*, programa informatiko errazak erabiliz lan plastikoak egiteko zenbait jarduera planteatzen dira, bai eta taldeko zenbait jarduera ere, hezkuntza espazio ezin hobeak baitira, ezbairik gabe, aniztasuna lantzeko eta berdinen arteko harremana eta balioen hezkuntza sustatzeko.

Proposamen honek hainbat alorretan laguntzen du oinarriko gaitasunak garatzen. Besteak beste honako hauek azpimarratuko genituzke:

- **Giza eta arte kulturarako gaitasuna.** Ikaslearen behaketa, adierazmen eta sormen plastikoaren gaitasuna handitzen duten kontzeptuen, tekniken eta materialen berri izatea eta haiek erabiltzea sustatzen da. Horrez gain, pixkanaka-pixkanaka arte lanak erakusten zaizkenez, ikasleen sentikortasun estetikoak pizten eta haien kultura ondarea aberasten laguntzen da.
- **Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.** Zenbait jardura plastikotan, ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzen da: ipuinen atalen ilustrazioetan, gabon kantetan, komikietan...
- **Matematikarako gaitasuna.** Matematikako zenbait kontzeptu sartzen dira. Esaterako: konposizioa eta simetria, eta forma geometrikoak identifikatzea irudietan. Espazio antolamenduko teknika batzuk ere erakutsiko zaizkie (lauki sarea, esate baterako).
- **Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.** Ingurune naturaleko zein artifizialeko elementuetako forma, kolore, testura eta abarri behatuz eta haiek aztertuz lantzen da. Ingurunearen Ezaguera alorreko interesgunearen baitan ikasi beharrekoak dira.
- **Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.** Ikusizko kodeak eta argazki sekuentziak erabiltzen dira informazio iturri moduan. Horretaz gain, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen hasiko dira lan plastikoak egiteko, eta tresna horiek sentimenduak eta bizipenak adierazteko beste baliabide bat izateaz gain, jasotzen dituzten mezuei zein beraiek sortzen dituztenei buruzko iritzi kritikoa garatzen laguntzen dute.
- **Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.** Talde lanak eginez taldean lan egiteko ohiturak lantzen dira, eta horrek errespetua eta lankidetzatza garatzen laguntzen du. Horrez gain, ingurune materialak eta bota egin ohi diren materialak erabiltzeak ere laguntzen dute gaitasun hori garatzen.
- **Ikasten ikasteko gaitasuna.** Aurretik landutako teknikak eta prozedurak erabiltzea eskatzen duten jardueren bidez garatzen da; hots, inferentzia eta dedukzio prozesua eskatzen duten jardueren bidez.
- **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.** Ikasleak bere buruan konfiantza izatea, iritzi kritikoa, norberaren ekimena, jakin-mina eta sormena garatzeko, jardura jakin batzuk planteatzen dira, aurretik plangintza egitea eskatzeaz gain, erabakiak beraien kasa hartzea, oztopoak gainditzea eta baliabideak hautatzea eskatzen duten jarduerak.



1. mailako edukien mapa

	Interesgunea	Behaketa	Adierazpena eta sormena	Teknikak eta materialak
1 Elkarren antzik ba al dugu? 4. OR.	Gorputza (I)	Ilearen kolorea	<ul style="list-style-type: none"> Gorputzaren atalak: burua, enborra eta gorputz adarrak Aurpegiaren atalak: begiak, sudurra eta ahoa Aurpegiera: poza, harridura, tristura eta beldurra Ingerada Aurretik ikusita eta albotik ikusita Sormenezko berrikuspena: giza irudia 	<ul style="list-style-type: none"> Moztea Margotzea Itsastea Gainmarratzea Marraztea Inguruneko materialak: artilea
2 Eskuez sentitzen dugu 10. OR.	Zentzumenak	Ikusizko sententzioak: leuna, latza eta likatsua	<ul style="list-style-type: none"> Ukimeneko testurak: leuna, latza eta likatsua Lerro zuzena, kurbatua eta hautsia Esperimentazioa materialekin: papel busti margotua Konposizio askea Sormenezko berrikuspena: paperezko loreak 	<ul style="list-style-type: none"> Collagea Lerroak marraztea Papera itsastea eta marraztea Inguruneko materialak: egunkari papera
3 Formen entsalada! 16. OR.	Elikagaiak	Naturako formak: jakien ingerada	<ul style="list-style-type: none"> Simetria, lauki sarea erabilia Puntua eta lerroa ingurunean: jakiak Orbanak irudi bihurtzea Ingurune afektiboaren irudikapena: askari gogokoena 	<ul style="list-style-type: none"> Marraztea Margotzea Moztea Puntuz egitea
4 Gabonetako lerroak 22. OR.	Etxea, familia eta jaiak	Lerro zuzena: bertikala, horizontala eta zeharria Lerro uhinduna	<ul style="list-style-type: none"> Forma geometrikoak: laukizuzena, zirkulua eta triangelua Kolore kodea Lerro bertikala, horizontala, zeharria eta uhinduna Berrikuspena: Gabonetako apaingarriak Gabon kantaren marrazkia 	<ul style="list-style-type: none"> Margotzea Gainmarratzea Lerroak egitea Moztea Marraztea Inguruneko materialak: artilea Zulatzeta Sartzea Lotzea
Nire egun bereziak...	Udazkeneko hostozko mugikaria			
5 Natura margotuko dugu 28. OR.	Ura, airea, lurra eta klima	Naturako elementuen irudikapena: uraren egoera	<ul style="list-style-type: none"> Lerroa, puntua eta orbana ingurunean: euria, elurra eta lainoa Esperimentazioa materialekin: <ul style="list-style-type: none"> Ur koloreztatua, putz egiteko Collagea, gatza, lurra eta hondarra erabiliz Berrikuspena: tekniken konbinazioa 	<ul style="list-style-type: none"> Pintatzea Karea lausotzea Tenpera tantei putz egitea Collagea Teknika mistoa Inguruneko materialak: gatza, lurra eta hondarra
6 Artistak landetxean 34. OR.	Landetxea	Naturako formak: animaliak	<ul style="list-style-type: none"> Lerro paraleloak egiten hastea Erritmo uniformeak: kolorea eta forma Orbana naturako formetan Eskema geometrikoak, marrazteko: zirkunferentzia Buztinez modelatzen hastea: esferak Ipuinaren marrazkia 	<ul style="list-style-type: none"> Pintatzea Arrastoak estanpatzea Teknika mistoa Marraztea Margotzea Argizari biguna lausotzea Modelatzea eta muntatzea Inguruneko materialak: izozki makilak

	Interesgunea	Behaketa	Adierazpena eta sormena	Teknikak eta materialak
7 Paperezko basoa! 40. OR.	Basoa	Ikusizko testurak: animalien ilea eta larrua	<ul style="list-style-type: none"> Ikusizko testurak: animalien ilea eta larrua Forma geometrikoak: oboidea Ukimenezko testurak: artilea Esgrafiatuarekin lanean hastea: bi kolore Konposizioekin lanean hastea: hiru plano 	<ul style="list-style-type: none"> Margotzea Marraztea Teknika mistoa Argizaria lausotzea Inguruneko materialak: artilea Gainmarratzea Esgrafiatzea Moztea Itsastea
8 Urdina, itsasoa bezala! 48. OR.	Itsasoa	Ikusizko diskriminazioa: forma eta kolorea	<ul style="list-style-type: none"> Osotasun baten zati bat: puzzlea Erreferentzia izanda kopiatzea Kolore nahasteak eta orbanak: urdinen gama Sormenezko berrikuspina: itsas paisaia Tekniken konbinazioa 	<ul style="list-style-type: none"> Moztea Marraztea Margotzea Karea lausotzea Pintatzea
Nire egun bereziak...	Elurretako panpina			
9 Fantasiatzko makinak eraikiko ditugu 54. OR.	Lanabesak, makinak eta energia	Objektuak zenbait posiziotan	<ul style="list-style-type: none"> Kopia, lauki sarean oinarrituta Marrazteko eskema geometrikoak: laukizuzena Erreferentzia izanda kopiatzea: neurritz handitzea Forma geometrikoak: laukizuzena, laukia, zirkulua eta triangelua Jostailuak egitea: makina zoragarria Naturaletik marraztea 	<ul style="list-style-type: none"> Marraztea Gainmarratzea Moztea Modelatzea Margotzea Inguruneko materialak: kartoizko kaxa eta aluminio papera Forratzea Itsastea Txertatzea
10 Zer ikusten dugu kalean? 60. OR.	Kalea eta garraiobideak	Forma geometrikoak: triangelua, zirkulua eta laukizuzena	<ul style="list-style-type: none"> Objektuen estapanazioa: tapoia eta borragoma Proportzioa lantzen hastea: antzeko neurriko irudiak Seinaleak Forma eta kolore kodeak Materialen ezaugarriak: gardentasuna eta kolorea Konposizioa eta proportzioa 	<ul style="list-style-type: none"> Estanpatzea Marraztea Teknika mistoa Itsastea Inguruneko materialak: tapoia eta aldizkariak Collagea Margotzea Moztea
11 Mezua, mezua! 68. OR.	Komunikazioak	Osotasun baten zatiak	<ul style="list-style-type: none"> Emandako espaziora egokitzea Espazioak betetzea Sormenezko marrazketa Simetria, ardatza eta erreferentziak emanda Berrikuspina: modelatua, plastilina erabiliz 	<ul style="list-style-type: none"> Collagea Plastilina modelatzea eta zapaltzea Marraztea Margotzea Inguruneko materialak: egunkaria
12 Marrartzuko al dugu denbora? 74. OR.	Denboraren neurketa	Sekuentziak: lehenago eta geroago	<ul style="list-style-type: none"> Irudiak eta koloreak eguneko unera egokitzea Apainketa askea Afektuzko ingurunearen irudikapena: jostailu gogokoena Irudiak aukeratzea, emandako gai baten arabera Eraikuntza: hormako erlojua 	<ul style="list-style-type: none"> Marraztea Margotzea Itsastea Pintatzea Inguruneko materialak: artilea, tapoia, kaxak (kartoizkoa, gazta txikiena)
Nire egun bereziak...	Hatzetako txotxongiloak			

2. mailako edukien mapa

	Interesgunea	Behaketa	adierazpena eta sormena	Teknikak eta materialak
1 Lerroen bidez marrazten 4. OR.	Gorputza (II)	Giza irudia: gorputz eskemak	<ul style="list-style-type: none"> Gorputz eskema linealak (I) Testura artifizialak: ehun iragazgaitzak Hirugarren dimentsioa: <ul style="list-style-type: none"> –Garapen errazak –Modelatzea eta piezak muntatzea 	<ul style="list-style-type: none"> Marraztea Collagea Tolestea Modelatzea Muntatzea Moztea Itsastea
2 Bai artista osasuntsuak! 10. OR.	Osasuna eta gaixotasunak	Ikusizko diskriminazioa: osotasun baten zatiak	<ul style="list-style-type: none"> Gorputz eskema linealak (II) Giza irudia mugimenduan Kolore primarioak eta sekundarioak Seinaleak eta piktogramak Ingurune afektiboaren irudikapena: jolas jarduera 	<ul style="list-style-type: none"> Marraztea Margotzea Lausotzea Diseinatzea
3 Koloretako lumak eta ileak! 16. OR.	Animaliak (I)	Ikusizko diskriminazioa: testura naturalak	<ul style="list-style-type: none"> Testura naturalen imitazioa: <ul style="list-style-type: none"> –orbanak eta lerroak (ilea) –argizari gogorreko txirbilak (lumak) Eskema geometrikoak, marrazteko: zirkunferentziak Orbanak irudi bihurtzea Sormenezko berrikusketa: materialak aukeratzea 	<ul style="list-style-type: none"> Esgrafiatzea Txirbilak egitea Collagea Marraztea Margotzea
4 Apaindura dun animaliak! 22. OR.	Animaliak (II)	Artelanen iruzkina: formak eta koloreak	<ul style="list-style-type: none"> Testura naturalen imitazioa (ezkatak), honako hauen bidez: <ul style="list-style-type: none"> –hatz aztarnak –plastilina bolatxoak Simetria, ardatza eta erreferentziak emanda Makiladun txotxongiloa Sormenezko berrikusketa: teknikak aukeratzea 	<ul style="list-style-type: none"> Estanpatzea Plastilina modelatzea eta zapaltzea Marraztea Margotzea Moztea Itsastea
Nire egun bereziak...	Eguberrietako postala			
5 Lorategian margotzen 28. OR.	Landareak	Ikusizko diskriminazioa: osotasun baten zatiak	<ul style="list-style-type: none"> Artelanen antzekoak egitea: orbana Testura naturalen imitazioa: landaredia Bi dimentsiotik hiru dimentsiora: muntatzea Berrikusketak: teknika egokiak aukeratzea Inguruneko forma naturalak irudikatzea: landareak 	<ul style="list-style-type: none"> Estanpatzea Collagea Muntatzea Moztea Papera urratzea eta zimurtzea Marraztea Margotzea
6 Paisaia zoragarriak 34. OR.	Paisaia	Artelanen iruzkina: ideiak eta sentimenduak	<ul style="list-style-type: none"> Natura inguruneko elementuak: urtaroak Enkoadraketa kontzeptua: sarrera Espazio erlazioak: gertu-handia, urrun-txikia Ibilbideak aztertzea Sormenezko berrikusketa: neguko paisaia 	<ul style="list-style-type: none"> Marraztea Pintatzea Margotzea Moztea Itsastea

	interes-gunea	Behaketa	adierazpena eta sormena	Teknikak eta materialak
7 Hara zenbat puntu dauden zeruan! 40. OR.	Lurra, Eguzkia, eta Ilargia	Ikusizko diskriminazioa: forma eta kolorea	<ul style="list-style-type: none"> • Puntua eta zirkulua • Eguneko eta gaueko koloreak • Txantiloiz pintatzen hastea: txantiloiak • Ikurrak: mezu ezkutua • Espazio antolaketa: konposizioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Margotzea • Lausotzea • Idaztea • Marraztea • Itsastea • Zulatzea • Puntuz egitea
8 Materialekin probak egiten 48. OR.	Materialak, indarrak eta soinua	Materialak identifikatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Ikusizko testurak • Ukimenezko testurak • Materialen propietate fisikoak: gogortasuna • Materialak berrerabiltzea plastikako lanetan: <ul style="list-style-type: none"> –Sormenezko marrazkia –Eskulturak egitea 	<ul style="list-style-type: none"> • Pintatzea • Puntuz egitea • Eraikitzea • Marraztea eta margotzea • Inguruneko materialak: ehuna, kartoizko kutxak eta hodiak • Lausotzea • Collagea
Nire egun bereziak...	Martetar mozorroa			
9 Artisten auzoa 54. OR.	Auzoa eta herria	Forma geometrikoak: triangelua, karratua, zirkulua eta laukizuzena	<ul style="list-style-type: none"> • Eraikinen osaera: forma geometrikoen konbinazioa • Txandakako erritmoa: bi forma eta bi kolore • Objektuen estanzioa: karea eta dadoa • Planoa-altxaera erlazioa (sarrera) • Espazioaren irudikapena: maketa • <i>Aurrealdea</i> kontzeptua (sarrera) 	<ul style="list-style-type: none"> • Collagea • Estantpatzea • Idaztea • Margotzea • Eraikitzea • Modelatzea • Marraztea • Inguruneko materialak: kartoia eta kutxak
10 Eskulanak! 62. OR.	Lana: lehen sektorea eta bigarren sektorea	Artelanen iruzkina: gaia	<ul style="list-style-type: none"> • Esperimentazioa materialekin: arroza eta dilistak • Irudien transferentzia eta konposizioa • <i>Frottage</i> teknika (sarrera) • Espazio erlazioak: aurrean eta atzean • Modelatua eta inprimaketa buztinean: katilua 	<ul style="list-style-type: none"> • Collagea • <i>Frottagea</i> • Ehuna inprimatzea • Inguruneko materialak: arroza, dilistak eta ehuna • Kalkatzea • Modelatzea
11 Azoka koloretsua 68. OR.	Lana: hirugarren sektorea	Irudien segida: komikia	<ul style="list-style-type: none"> • Kolore konbinazio askeak • Inguruneko irudien deskribapena: garraioak • Horma irudiak egitea (sarrera) • Eraikuntza: azokako postua 	<ul style="list-style-type: none"> • Margotzea • Marraztea • Eraikitzea • Inguruneko materialak: kartoizko kutxa, brotxeta makilak, ehuna, txitxirioak, dilistak eta babarrunak • Idaztea • Moztea
12 Antzinako lanetan murgiltzen 74. OR.	Denboraren joana	Artelanen iruzkina: Antzinaroa	<ul style="list-style-type: none"> • Kolorearen sormenezko erabilera • Artista aipagarriak eta arte lanbideak • Arte ingurunea • Seinaleak: portaera arauak museoetan • Irudizko munduaren irudikapena 	<ul style="list-style-type: none"> • Margotzea • Idaztea • Moztea • Itsastea • Marraztea
Nire egun bereziak...	Munduko bola artikulatua			